

IV International Forum on Cooperative Law. Cooperation among cooperatives: a principle of the past or for the future?

IGONE ALTZELAI ULIONDO

Irakasle agregatua Merkataritza Zuzenbidean
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

GEZKI, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (EHU)

Sarrera

Liburu honek 2023ko azaroaren 29tik abenduaren 1era Donostian izan zen *Zuzenbide Kooperatiboari buruzko IV. Nazioarteko Foroan* aurkeztutako ekarpenak biltzen ditu. Ius Cooperativum elkarteak antolatua, GEZKI Institutua, EHUko Zuzenbide Fakultatea eta Nazioarteko Kooperatiba Aliantza laguntzaile izan zituela, topaketa honek juristak, akademiakoak, erakundeetako ordezkariak eta mugimendu kooperatiboko eragileak bildu zituen, funtsezko gai bati buruz hausnartzeko: seigarren printzipio kooperatiboaren indarra —*kooperatiben arteko lankidetz*a— egungo aldaketa juridiko, sozial, ekonomiko eta teknologikoen testuinguruan.

Iraganeko ala etorkizunerako printzipioa? lelo pean, foro hau, ikuspegi teoriko zein praktikotik, lankidetz-moduak aztertze

ko diziplinar

teko gune bihurtu zen. 20 herrialde baino gehiagoko esperientziak elkarriketa-gai jarri ziren eta aurkeztutako 50 lan baino gehiagok gai anitz jorratu zituzten: fiskalitatea, gobernantza, bigarren mailako kooperatiba-egiturak, gizarte-ekonomiako beste erakunde batzuekiko loturak, genero-ikuspegia eta trantsizio energetikoa, besteak beste. Iruzkin honek foroaren ekarpen nagusien berri ematea du helburu eta, bide batez, interkooperazio-printzipioaren garapenerako ildo nagusien balorazio kritikoa eskaintzea.

Nazioarteko Aliantzaren kooperatiba-identitateari buruzko adierazpe-nean, seigarren printzipioak honako hau ezartzen du: *Kooperatibek beren kideei modu eraginkorrangoan laguntzen diete eta kooperatiba-mugimendua indartzen dute, tokiko, nazioko, eskualdeko eta nazioarteko egituren bidez el-*

* **Correspondencia a/Corresponding author:** Igone Altzelai Uliendo. EHU. – igone.altzelai@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-0623-5471>

Cómo citar/How to cite: Altzelai Uliendo, Igone (2025). «IV International Forum on Cooperative Law. Cooperation among cooperatives: a principle of the past or for the future», *GIZAEOA - Revista Vasca de Economía Social*, 22, 299-304. (<https://doi.org/10.1387/gizaekoa.27696>).

Recibido: 11/7/2025; aceptado: 17/7/2025.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © UPV/EHU Press



Esta obra está bajo una licencia
Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

karrekin lan eginez. Historian zehar, agindu etiko eta funtzional honek tamaina handiko egitura solidarioak eraikitzeko, arriskuak partekatze eta erresilientzia kolektiboa sustatzeko balio izan du. Hala ere, azken urteetako esperientziak erakusten du alde nabarmena dagoela printzipioaren adierazpen horren eta bere benetako aplikazioaren artean.

Foroan, hainbat ponentzian adierazi zen zenbait faktorek interkooperazioa garatzea zail egiten dutela. Horien artean dira: araudi zatikatua, oztopo fiskalak, kooperatiben tamainak sortutako desorekak edota merkatuko lehia-eredua, banakako irabaziak maximizatzea saritzen duena bidezko lankidetzaren ororen gainetik. Halaber, interkooperaziorako egiturek —kooperatiba-egiturak, enpresa-taldeak edo aliantza funtzionalak izan— ez dute askotan beren berezitasunak aintzat hartzen dituen marko juridikorik izan.

Arau-oztopoak: zerga-araubidea eta sozietate-tipologia

Foroaren ardatz garrantzitsuenetako bat, interkooperaziorako arau-oztopoen artean, arauketa fiskalarena izan zen. Herrialde desberdinetako kooperatiben zerga-araubideak alderatzea erraza ez den arren, zenbait kontzeptu eta gai unibertsal identifikatu ziren eta politika fiskalen helburuen eta printzipio kooperatiboen arteko harremanak aztertu. Bestalde, liburuan bereziki Espainiako fiskalitatea aztertzen da, nabarmena baita aldea kooperatiben arteko integrazio-prozesuetan egitura-aldaketak egiten badira ala ez. Hor kokatzen dira, esaterako, akordio interkooperatiboak, bigarren mailako kooperatibak eta kooperatiba-taldeak eta hauei guztiei arreta berezia eskaintzen zaie.

Halaber, Foroan egindako beste hausnarketa batzuk kooperatibetako lan-harremanei buruzkoak izen ziren, lan kooperatiboaren arauketa juridikoa aberasteko asmoz. Zuzenbideak, oro har, soldatapeko lanari eskaintzen dio arreta nagusia, funtzionarioen araubide juridikoari gutxiago, autonomoei ondoren eta, azkenik, gutxien kooperatibatan lan egiten dutenei. Argi dago lan-motak duen garrantzi kuantitatiboaren eta bere arau-garapenaren artean harreman zuzena dagoela. Hala ere, hori ez da arrazoi nahikoa lan-mota berezi eta kualitatiboki esanguratsua den honi arreta handiagoz ez eskatzeko.

Arau-oztopoen inguruan, liburuak Foroan jorratutako hainbat adibide jasotzen ditu, herrialde ezberdinetan kooperatiben arteko lankidetzari buruzkoak. Hego Amerikako eremuan azpimarratzekoa da, oro har, integrazio politikoari, ordezkartzari edo arlo sozialari ematen zaiola lehentasuna eta ez integrazio ekonomikoari. Kasu askotan, integrazio kooperatiboa goi mailako ordezkartza-erakundeetan kide izatearekin identifikatzen da, integrazio ekonomikoari ia aipamenik egin gabe, salbuespen gutxi batzuekin.

Hori dela eta, legediak integrazio ekonomikoa sustatu behar duela aldarrikatzen da, horretarako egitura juridiko egokiak eskainiz.

Afrikako kontinentean, Etiopiako kasua aztertzen da, non biztanleria-
ren erdia kooperatibek eskaintzen dituzten zerbitzuez baliatzen den. Hala
ere, oinarritzko arazo ekonomiko eta sozialei aurre egin behar diete. Dituz-
ten gabezien artean, nabarmena da giza-baliabide espezializaturik eza, ku-
deatzaile eta profesionalen gabezia. Hemen, kooperatibismoaren garapene-
rako, testuinguru politiko eta juridiko egokia eraikitzeko sortu beharreko
aukerak aztertzen dira.

Asiako kontinentean, India da kasu aztertua, 1904az geroztik dauka
kooperatiben inguruko araudia duena. Legeek kooperatibei autonomia eta
antolaketa-independentsia aitortzen dizkieten arren, benetan ez dute auto-
nomia operatiborik. Praktikan kooperatiben autonomia-mailak urria iza-
ten jarraitzen du, kooperatiba gehienak gobernuaren plan eta programak
betetzeko tresna gisa erabiltzen baitira. Ez dira bazkideentzako zuzendu-
tako entitate modura hartzen, ezta beren artean autolaguntza eta elkarren
arteko laguntza sustatzeko tresna modura ere. Horregatik, eztabaida politi-
korako hainbat gai planteatzen dira.

Azkenik Europa-mailan, Italiako legediaren barruan gai berezi bat jo-
rratzen da: kooperatiba sozietateen aktiboen blokeoa likidazio-fasean. Ita-
lian, aktiboen blokeoa gizarte-izaera duten enpresen funtsezko ezaugarria
da, gizarte-helburuak bermatzeko. Hala ere, likidazio-prozesuan arau ho-
nek bestelako funtzionamendua izan dezake eta xede horien betetzea za-
lantzan jar dezake.

Interkooperazioa eta identitatea: efizientziaren eta gobernantzaren arteko tentsioak

Kooperatiben artean enpresa-taldeak garatzeak funtsezko eztabaida sor-
tzen du egitura integratu horietan identitate kooperatiboa mantentzeari
dagokionez. Oso ohikoak dira goi-mailako kooperatiben eta oinarritzko
kooperatiben arteko lankidetza bertikalak eta, sarritan, goikoek hartutako
erabakiak azpikoei inposatzen zaizkie, baita hauen barneko gaietan ere.
Gai horiek bazkideen artean, modu demokratikoan, eztabaidatu beharko
lirateke. Hori ez egiteak kooperatibaren identitatea bera arriskuan jartzen
du eta, nolabait, kooperatibak merkatuaren logikara egokitze duen joera
erakusten duela ere esan daiteke.

Horregatik aztertzen da ea, printzipio kooperatiboak kontutan hartuta
—demokrazia, autonomia eta independentzia— erabaki horien gainean
mugak jartzeko edo, sozietateen antzera, talde ekonomikoen figura juri-
dikoa sortzeko oinarriak egon litekeen. Zentzu honetan, azpimarratzen da

identitate kooperatiboaren elementuek eragin zuzena dutela interkooperaziorako egiturak eta gobernantzako araubide egokiak zehazteko garaian. Hori dela eta, garrantzi berezia hartzen dute bazkideek kooperatibetan dituzten kontrol demokratikoei, bai kooperazio-egiturak kontrolatzeko eta baita gatazkak konpontzeko mekanismoetarako ere.

Kooperatiben arteko integrazio- eta lankidetza-moduei dagokienez, egitura-aldaketak dakartzaten integrazio-prozesuak aztertzen dira, esaterako, bategiteak (fusioak). Halaber, aztertzen dira lankidetza ekonomiko edo politikorako formula malguagoak, hala nola bigarren edo goragoko mailako kooperatibak, kooperatiba-taldeak, *joint venture* akordioak, kooperatiba mistoak edota zeharkako mutualitatea, kooperatibaren jabetza-koak diren edo kooperatibaren partaidetza duten merkataritza-sozietateen bitartez burutzen dena.

Formula horiek guztiek interes berezia dute egungo testuinguruan, kooperatibek lehiatu behar duten enpresen tamainaren hazkundeari erantzuteko eta ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko harremanak ekar ditzakeen onurak bilatzeko. Hala ere, ohartarazi behar da mekanismo horien erabilera desegokiak kooperatiba-legedia eta printzipio kooperatiboak urratzeko arriskuak ekar ditzakela.

Dena den, esan beharra dago ere, lehia globalak eta enpresaren bizi-raupenak markatutako ingurune honetan, kooperatiben erreakzioa ez dela berdina ekonomiako sektore guztietan. Esate baterako, bada kontraesana duen fenomeno sektore batzuetan, hala nola nekazaritzan: batetik, integrazio kooperatiboa (integrazio ekonomikoa) sustatzeko joera dago eta, bestetik, kooperatiben jarduera desintegratu edota kanporatzeko joera, kapital-sozietateen bitartez. Horren adibide gisa azaltzen dira Castilla-León eta Poloniako esperientziak nekazaritzako elikagaien sektorean, fenomeno hori agerian uzten dutenak.

Aitzitik, energiaren sektorean, hau ere sektore estrategikoa izanik, egoera eta testuinguruak oso bestelakoak dira. Hemen, lege-oztopoak gainditzeko eta kooperatibak sustatzeko irtenbide berritzaileak sortzea lehenesten da, maila guztietan lankidetzari edo interkooperazioari garrantzia emanaz, auto-kontsumo energetikoa eta energia-komunitateak bultzatzeko helburuarekin, 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat eginez.

Lankidetza-modu berriak: iraunkortasuna, genero-ikuspegia eta aliantza hibridoak

Foroak lankidetza-modu berriak azaleratzeko ere balio izan zuen eta, horien artean, elkarte eta kooperatiben arteko lankidetza aipatzen da liburuan, ohikoak diren integrazio-ereduetatik kanpo geratzen diren lankide-

tza hibridoek ere aitorpen juridikoa ematearen garrantzia azpimarratuaz. Liburuan, alde batetik, elkarteen eta kooperatiben arteko lankidetzarako inguruabarrak aztertzen dira, kontuan izanik elkarreak kooperatiben aliatu naturalak direla, kooperatiba-mugimendua indartzen lagundu dutela eta etorkizunean ere gehiago lagun dezaketela. Bestetik, aztergai da kooperatiben arteko lankidetzaren printzipioa gizarte-ekonomiako beste erakundeetara zabaltzeko aukera, gizarte-ekonomiako erakundeen lehiakortasun-ahuleziak kontuan hartuta. Ahulezia horiek, nabarmenagoak dira enpresa txiki eta ertainetan eta mikroenpresetan eta horiek dira, hain zuzen ere, Espainiako enpresa-sarea osatzen dutenak neurri handi batean.

Foroak, halaber, aukera eman zuen interkooperazio-printzipioa ekin-tza-esparru berrietara zabaltzeko dagoen borondatea ikusarazteko, hala nola genero-ikuspegira edo trantsizio ekologikora. Ildo horretan, aztertu egiten dira Nazioarteko Aliantzaren kooperatiba-kontzeptua bera, izaera internazionalista duena, eta 1966tik indarrean dagoen seigarren printzipioa, hau da, kooperatiben arteko lankidetzaren. Hauen eraginari, hedapenari eta egungo esanahiari erreparatzen zaie, 2030 Agendaren eta garapen jasangarriko helburuen testuingurua aintzat hartuta. Azken finean, helburu horiek, etekinetan eta hazkunde mugagabearen oinarritutako jardueraren ekonomikoaren ondorioak murrizteko definitu izan dira, oinarritzko ideia nagusia *inor atzean ez uztea* izanik. Horregatik erraz lotzen dira seigarren printzipio kooperatiboarekin. Baina horretarako funtsezkoa da bosgarren printzipioaren hezkuntza-lanari bultzada ematea.

Era berean, aztertzen dira egungo araudiak eman ditzaken aukerak interkooperazioa sustatzeko, berdintasunean eta diskriminaziorik gabeko baldintzekin. Europar Batasuneko araudia eta Espainiako estatuko eta autonomia-erkidegoetako ordenamendu juridikoak aztertuta, genero-berdintasunean sakontzeko garrantzizkoak diren hainbat elementu identifikatzen dira, seigarren printzipioaren ikuspegitik. Proposatzen da nazioarteko eta estatuko erakunde eta organo espezializatuek genero-ikuspegiarekin egindako interkooperazio-esperientziak erreferentziatzat hartzea, bai izaera ekonomikoa duen interkooperazio horizontalean, bai eta ordezkartzearen oinarritutako interkooperazio bertikalean ere. Testuinguru horretan, elkarrekin, federazio eta konfederazioen jarduerak mamitzen dira eta, horien bidez, lankidetzaren informaleko sareak eratu eta garatu daitezke, kooperatiben arteko elkarlan justu eta inklusibo baterako oinarriak finkatzeko.

Ondorioa: seigarren printzipioa XXI. mendeko norabide juridiko gisa

Kooperatiba-zuzenbideari buruzko IV. Nazioarteko Foroaren inguruan egindako balorazio orokorra ikusita, esan daiteke kooperatiben arteko lan-

kidetza-printzipioa ez dagoela zaharkitua. Aitzitik, indarberrituta ageri da erronka globalen aurrean, alegia, krisi ekologikoa, kontzentrazio ekonomikoa, bazterketa soziala edota digitalizazioa. Hala ere, printzipio honek bere indar eraldatzaile osoa berreskuratu ahal izateko, funtsezkoak diren egokitzapenak behar dira: kooperatiben lankidetza zigortzen ez duen fiskalitatea, autonomia eta demokrazia errespetatzen dituen gobernantza-sistema edota lankidetza-forma anitzak aitortzen dituzten marko juridikoak.

Kooperatiben arteko lankidetza ez da borondatezko aukera hutsa izan behar, baizik eta eredu kooperatiboaren oinarritzko baldintza, babes juridikoa eta politikoa behar duena. Orduan bihur ahal izango da merkatu-ekonomia sozialaren zutabe, diskurtsoaren mugak gaindituz, ekonomia finantzariaren gehiegikeri eta lanaren prekarizazioaren aurka benetako alternatiba bihurtzeko.

Ilido horretan, foroan garatutako lanek eta argitalpen honetan bildutako ekarpenek berebiziko garrantzia hartzen dute xxi. mendeko Kooperatiba-zuzenbidean aurrera egiteko, izan dadin dinamikoagoa eta zehatzagoa eta kooperatibismoaren oinarri eta balioekin konpromezu handiagoa har dezan.